ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 10a, ostirala • 54 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ABEZIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Abeziako herrian ehiza esparrua eratzeko

Abeziako Administrazio Batzarrak ehiza esparrua (matrikula: VI-10199) berritzea erabaki du. Ehiza esparruaren titularra aipatutako administrazio batzarra da, jabe taldearen ordezkaritzan.

Ehiza esparru hori sortzean, helburu horrekin ezarri den inguruko lurzati guztiak sartu dira, nola publikoak hala pribatuak, eta horren berri ematen da iragarki honen bidez, eragindako lursailen jabeek baimena eman ahal izateko; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman ahal izateko. Ulertuko da isilbidezko baimena eman dutela iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, hamabost egun balioduneko epean, kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek, eta administrazio batzarrak baimena izango du ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Aezia, 2019ko apirilaren 26a

Lehendakaria
JUAN IGNACIO LEKUONA LABURU

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.10 05:27:23 Z